

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Bischoffen argudio pisutsuak



Theodor Bischoff (1807-1882) biologo eta anatomista alemaniarak teoria bitxia formulatu zuen gizon eta emakumeen garunei buruz. Bere heriotzak hipotesia gezurtatu zuen, ordea.

MUNICH (ALEMANIA), 1882KO ABENDUAREN 5A. Theodor Ludwig Wilhelm von Bischoff anatomista eta biologo alemana hil zen. 1835 eta 1843 artean Heidelbergeko Unibertsitate ospetsuko anatomia irakaslea izan zen, hurrengo hamarkadan Giesseneko Unibertsitatean jardun zuen fisiologia eskolak ematen, eta, ondoren, Municheko Unibertsitatean eman zituen bi ikasgaiak. Ekarpengarrantzitsuenak, artean Heidelberg zela, enbriologiaren alorrean egin zituen, ugaztunen obuluen ikerketan, hain zuzen.

Handik aurrerako ikerlanak ez ziren hain arrakastatsuak izan. Urea neurtuz animalien metabolismoa aztertzekeo esperimientuek ez zioten emaitza onik eman. Eta giza garunaren eta garezurraren azterketak ere buruhaustek ekarri zizkion Hannoverreko zientzialariari.

Urteak eman zituen giza garunak biltzen, aztertzen, neurtzen... eta pisatzen. 1870eko hamarkadan ikerketa horiek nolabaiteko ospea eman zioten alor horretan ere, gizona zkoen artean bereziki. Emakumeak, ordea, ez zetozen bat Bischoffen hipotesiekin.

Garun bilduma zabala pisatu eta gero, anatomistak emaitza hauek lortu zituen: gizona zkoen garunaren batez besteko pisua 1.350 gramokoa zen, eta emakumezkoen garunak, aldiz, 1.250 gramo besterik ez zuen pisatzen, batez beste.

Bischoffek gizona zkoak emakumeak baino gehiago direla pentsatzen zuen garun bilduma aztertut baino lehen ere, eta neurketa horiek bere ustea egiaztatzen omen zuten. Gizakien ahalmen intelektuala burmuinaren pisuaren arabera omen zen eta, beraz, emakumezkoak gizona baino 100 gramo ergelagoak izan behar zuten. Mugimendu sufragistaren oldar betean, gizarteko goi-mailako emakume askok uhuka eta txistuka arbuaitzen zituzten haren hitzaldi eta agerpen publikoak. Zer beste espero zitekeen kaskezurraren barruan 1.250 gramo burmuin besterik ez zuten izakiengandik?

Bischoffek lehendik erabakita utzi zuenez, hil zenean garun pribilegiatua zientziari utzi zion, bildumako beste garun guztiakin batera. 1.245 gramo pisatzen zituen.



## Arrastoak

### Kleopatra eta Marko Antonioren bikien irudi bakarra

ITALIAKO IKERKETA KONTSEILU NAZIONALAK (CNR) Kairoko Museoa gordeta zegoen eskultura bat Kleopatra Selene eta Alexander Helios bikiena dela baieztatu berri du. Giuseppina Capriotti egiptologoa araberak, Kleopatra VII.a erreginaren eta Marko Antonio jeneralaren seme-alaba bikien irudirik ez da orain arte aurkitu. Beraz, hau da lehena eta, orainoz, bakarra.

Haur bakoitzak bere izenaren sinboloa du buru gainean: neskatoak ilargia (Selene), eta mutikoak eguzkia (Helios). Kleopatra Selene Numidiako Juba II.a erregearekin ezkondu zen, baina nebaren berri ez zaigu iritsi. Capriottiren ustez, "ziur aski patuak ez zion ezer onik ekarri".

CNR

